## Herrilan Saila

**Otsailaren 7ko 7/95 FORU DEKRETUA, Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide konbentzionaletan gasolindegiak non eta zelan jarri auraupetuko duena.**

HITZAURREA

Bizkaiko errepideei buruzko otsailaren 18ko 2/93 Foru Arauak 17.3. artikuluan zioen gasolindegien kokapena, instalazioa eta ezaugarri funtzionalak Herrilan Sailaren baimenaren pean geratuko zela, Foru Aldundiak foru dekretu bidez onetsiko lukeen arautegiaren arabera erabakiko zuen baimenaren pean hain zuzen ere, arautegi horrek, aldi berean, bidearen segurtasuna eta kapazitatea, erabiltzaileen erosotasuna eta paisaiarekiko begirunea bermatu behar izango lukeelarik.

Foru arau horretako xedapen erantsietako hirugarrenean ezarri bezala, horrelako foru dekreturik argitaratzen ez den bitartean, eta ordezko legez, 1969.eko maiatzaren 31ko Ministeritza Agindua ezarriko da.

Bizkaiko Errepideei buruzko Foru Arauan xedatutakoa betetzeko, beraz, eta 1969.eko maiatzaren 31ko Ministeritza Agindua onetsi zenean errepideek eta berauei lotutako eraikin eta instalazioek zituzten baldintza teknikoak eta horiek egun dituztenak guztiz bestelakoak direla kontutan harturik, onetsi da foru dekretu hau.

Bizkaiko Lurralde Historikoak dituen ezaugarri geografikoak, batetik, eta, bestetik, lurralde honetako errepideek behar duten tratamendu zehatza nahitaez kontutan hartzekoak dira, tratamendu horri, esaterako, zailtasun handiz heldu ahal izango zaio 1969.eko maiatzaren Ministeritza Agindua bezalako legezko xedapenen bidez, xedapen hori, espainiar Estatu guztirako izanik, egoera nabarmen berdintsuei begira pentsatuta dagoelako.

Foru dekretu honetarako, Bizkaiko Lurralde Historikoaren bidesistemaren berezko baldintzak oinarritzat harturik, hiru gasolindegi mota ezarri dira, bakoitzak, kokatzen deneko errepideak eutsi behar dion trafiko intentsitatearen arabera, ezaugarri tekniko ezberdinak dituela.

Aldi berean, errepide bateko bide bazter bietan gasolindegia bana jartzeko eskakizuna egiteko mugatzat 8.000 ibilgailu eguneko bataz besteko intentsitatea ezarri da, Errepideei buruzko Foru Arauko 38.8.b) artikuluan xedatutako irizpideei jarraituz, foru arau horrek 8.000 ibilgailutan jarri baitzuen maila bereko foru errepide bateko errei edo galtzadarako baimena emateko mugatzat.

Amaitzeko, eguneko bataz besteko intentsitatea 5.000 eta 8.000 ibilgailu artekoa denean, horrelakoetan baimenaren eskatzaileari, gasolindeia jarri ahal izateko, hauxe eskatuko zaio: proiektuko gasolindegiaren aurez aurre, beste aldean, eskatutakoaren ezaugarri berberak izango lituzkeen beste bat eraikitzeko adinako lur azalera gordetzea.

Asmoa, besterik gabe, hauxe da: gehienezko mugatik gertu dagoen eguneko bataz besteko intentsitatea duten foru errepideetan, beraietan errei edo galtzadaren bat baimenduta dagoenean, gasolindegiak jartzeko oztopoak ipintzea aurretiaz eguneko 8.000 ibilgailuren muga gainditzen denerako lurra gorde ez denean. Neurri horren bidez bidearen kapazitatea eta segurtasuna eta erabiltzaileen erosotasuna hobetu nahi da.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua.—*Gasolindegien kontzeptua***

Foru dekretu honen ondoreetarako, gasolindegitzat jendeari, oro har, saltzeko petrolio-erregaien txikikazko banaketa jarduera garatzen duen establezimendua joko da, baita ere automobilen eta zirkulazioaren beharrizanen estaldurarekin zerikusia duen beste edozein zerbitzu.

**2. artikulua.—*Errepide konbentzionalen kontzeptua***

Bizkaiko errepideei buruzko otsailaren 18ko 2/93 Foru Arauko 3. artikuluan adierazitako autopista, autobide eta bide arinak joko dira errepide konbentzionaltzat.

## Departamento de Obras Públicas

**DECRETO FORAL 7/95, de 7 febrero, regulador de la localización e instalación de Estaciones de Servicio en las carreteras convencionales del Territorio Histórico de Bizkaia**

PREAMBULO

La Norma Foral 2/93, de 18 de febrero, de Carreteras de Bizkaia, señala en el artículo 17.3 que en las carreteras convencionales la localización, instalación y características funcionales de las Estaciones de Servicio quedará sujeta a la autorización del Departamento de Obras Públicas, que decidirá con arreglo a la normativa que se apruebe por Decreto Foral de la Diputación Foral, debiendo quedar garantizada la seguridad y capacidad de la vía, así como la comodidad de los usuarios y la protección del paisaje.

En tanto que no se publique el citado Decreto Foral, la Disposición Transitoria Tercera establece que se aplicará supletoriamente la Orden Ministerial de 31 de mayo de 1969.

Así pues, en cumplimiento de lo dispuesto en la Norma Foral de Carreteras de Bizkaia, y teniendo en cuenta, además, que la Orden Ministerial de 31 de mayo de 1969, fue aprobada en una época en la que las condiciones técnicas de las carreteras y de las edificaciones e instalaciones a ellas afectas en poco se parecen a las actuales, es por lo que se aprueba el presente Decreto Foral.

Debe tenerse en cuenta que las características geográficas del Territorio Histórico de Bizkaia y la distribución de sus carreteras requieren un tratamiento específico, tratamiento que difícilmente se podía alcanzar a través de una disposición legal como la Orden Ministerial de mayo de 1969, de aplicación en todo el Estado español con situaciones notablemente heterogéneas.

Partiendo de las condiciones propias del sistema viario del Territorio Histórico de Bizkaia, se ha optado en el presente Decreto Foral por establecer tres tipos de Estaciones de Servicio, cuyas características técnicas varían según las intensidades de tráfico que soportan las carreteras sobre las que se ubican.

Igualmente, se ha fijado como Intensidad Media Diaria límite para exigir la instalación de Estaciones de Servicios en las dos márgenes de la carretera la de 8.000 vehículos, en consonancia con lo dispuesto en el artículo 38.8.b) de la Norma Foral de Carreteras, que fija también en 8.000 vehículos la cifra límite para permitir el cruce de algún carril o calzada de una carretera foral al mismo nivel.

Finalmente, en los supuestos en los que la Intensidad Media Diaria oscila entre 5.000 y 8.000 vehículos, se exige al solicitante de la autorización para instalar una Estación de Servicio, la reserva de una superficie de terreno suficiente para construir enfrente de la proyectada otra Estación de características idénticas a la solicitada.

El propósito no es otro que el de evitar la instalación de Estaciones de Servicio en carreteras forales con Intensidades Medias Diarias próximas al límite máximo en la que se permite el cruce de algún carril o calzada, sin que previamente se haya previsto la reserva de terreno para cuando se supere el límite de los 8.000 vehículos diarios, redundando tal medida en la mejora de la capacidad y seguridad de la vía, así como en la comodidad de los usuarios.

TITULO I

DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.—*Concepto de Estaciones de Servicio***

A los efectos del presente Decreto Foral, se entenderá por Estaciones de Servicio aquellos establecimientos en los que se desarrolle la actividad de distribución al por menor de carburantes y combustibles petrolíferos mediante su venta al público, así como cualquier otro servicio relacionado con la cobertura de las necesidades del automóvil y de la circulación.

**Artículo 2.—*Concepto de carreteras convencionales***

Serán carreteras convencionales las que no reúnan las características propias de las autopistas, autovías y vías rápidas señaladas en el artículo 3 de la Norma Foral 2/93, de 18 de febrero, de Carreteras de Bizkaia.

**3. artikulua.—*Eskumenak***

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide konbentzionaletako babesguneetan gasolindegirik jarri nahi izanez gero, horrelakoetan, kasu bakoitzean ezar daitezkeen xedapenen araberako bidezko bestelako lizentzia eta baimenez gain, Foru Aldundiko Herrilan Sailaren manuzko baimena beharko da. Baimen hori , aldi berean, lehendik eraikita zeuden gasolindegietan aldaketarik, edozein, egin ahal izateko ere behar izango da.

2. Errepide konbentzionaletako hiri-tarte eta zeharbideetarako, Bizkaiko errepideei buruzko Foru Arauko IV. kapituluan xedatutakoa izango da aginduzkoa.

3. Gasolindegia jartzeko baimena prekarioan emandakotzat joko da, gainontzekoen katerik gabe eta jabetza-eskubidea alde batera utzita.

4. Foru dekretu honetako eraskinetan jasotako preskripzio teknikoak betetzen dituzten gasolindegi eskabideak bakarrik baimendu ahal izango dira.

**4. artikulua.—*Ikuskapena***

Gasolindegien burutzapena emandako baimenaren arabera egiten ari dela ikuskatu eta kontrolatzeko ahalmena Herrilan Saileko Errepideen Zuzendaritza Nagusiari dagokio, baita ere gasolindegien mantenimendu eta artapena jagotea.

**5. artikulua.—*Baimenak eskualdatzeko ahalmena***

Herrilan Sailak gasolindegiak jartzeko emandako baimenak gainontzeko bati eskualdatu ahal izango zaizkio.

Hala ere, eskualdatzailea eta eskuratzaileak egin duten eskualdaketa Herrilan Sailari jakinarazi beharko diote, idatziz. Ostantzean, gasolindegien titulartasunaren ondorioz etor daitezkeen erantzunkizunak biei ezarri ahal izango zaizkie.

**6. artikulua.—*Debekapenak***

1. Ezin izango da inolaz ere gasolindegia jartzeko baimenik eman 7. artikuluan zehaztuko den ikusgarritasuneko tarteari 150 m gehitu eta emakineko aldea baino txikiago distantziaren barruan.

2.- Eguneko bataz besteko intentsitatea 5.000 ibilgailukoa baino handiagoa denean, ez da baimenduko ezkerretarako biragunerik.

3. Errepide funtzionalen barruko errepideetako zabalera murriztuko tarteetan ezin izango da gasolindegirik jarri. Horretarako, 7 metro baino gutxiagoko ebakidura duen galtzada joko da zabalera murriztuko tartetzat.

**7. artikulua.—*Sarbideen ikusgarritasuna***

Gasolindegietako sarbideen ikusgarritasuna-aldea, errepidearekiko neurtuta, ez da izango sekula ere sarbidea kokatuta dagoeneko tarteko abiadura zehatzari dagokion gelditzeko aldea baino txikiagoa.

Balore hauek hartuko dira erreferentziatzat:

Abiadura zehatza (km/h) 120 100 90 80 70 60 50 40 30

Ikusgarritasun-aldea (m) 210 160 130 100 85 65 45 35 20

II. TITULUA

BAIMENA ESKURATZEKO BETE BEHARREKOAK

**8. artikulua.—*Agiriak***

1. Foru dekretu honetako 3. artikuluak aipatu baimen-eskabidearekin batera, gasolindegiari buruzko proiektua eta azalpen memoria aurkeztuko dira, haietan gasolindegia kokatuko den lurrak, eraikinen kokapena, hornitegi kopurua eta kokapena, sarbideen taiuketa, itxaron-erreiaren kapazitatea, bidezoruaren osagaiak, lurren urbanizazioa, seinaleak, publizitatea eta instalazioetako argiteria xehetagunez zehartuko direlarik.

**Artículo 3.—*Competencia***

1. La instalación de Estaciones de Servicio en las zonas de protección de las carreteras convencionales del Territorio Histórico de Bizkaia requerirá, sin perjuicio de cuantas otras licencias y permisos fueran pertinentes de acuerdo con las disposiciones legales aplicables en cada caso, la preceptiva autorización del Departamento de Obras Públicas de la Diputación Foral. Dicha autorización será necesaria, igualmente, para la realización de cualquier modificación en las Estaciones de Servicio ya construidas.

2. En los tramos urbanos y travesías de las carreteras convencionales se estará a lo dispuesto en el Capítulo IV de la Norma Foral de Carreteras de Bizkaia.

3. La autorización para la instalación de Estaciones de Servicio se entenderá otorgada a título de precario, sin perjuicio de terceros y salvo el derecho de propiedad.

4. Sólo podrá autorizarse la instalación de Estaciones de Servicio que se ajusten a las prescripciones técnicas recogidas en los Anexos del presente Decreto Foral.

**Artículo 4.—Inspeción**

Corresponderá a la Dirección General de Carreteras del Departamento de Obras Públicas la inspección y control de la ejecución de las Estaciones de Servicio en conformidad con la autorización concedida, así como la vigilancia del mantenimiento y conservación de las mismas.

**Artículo 5.—*Transmisibilidad de la autorización***

Las autorizaciones otorgadas por el Departamento de Obras Públicas para la instalación de Estaciones de Servicio serán transmisibles a terceros.

No obstante, tanto el transmitente como el adquirente deberán notificar por escrito la transmisión efectuada al citado Departamento. En caso contrario, ambos quedarán sujetos a cuantas responsabilidades se deriven de la titularidad de la Estación de Servicio.

**Artículo 6.—*Prohibiciones***

1. En ningún caso podrá autorizarse la instalación de Estaciones de Servicio a una distancia inferior al resultado de sumar 150 m. a la distancia de visibilidad definida en el Artículo 7.

2. Tampoco se permitirán raquetas de giro a la izquierda cuando la intensidad media diaria sea superior a 5.000 vehículos, independientemente de la clase de vía de que se trate.

3. No podrán ubicarse Estaciones de Servicio en tramos de anchura reducida en las carreteras incluidas dentro de la Red Funcional. Se considerará que un tramo es de anchura reducida cuando la calzada tenga una sección inferior a 7 metros.

**Artículo 7.—*Visibilidad de los accesos***

La distancia de visibilidad de los accesos a las Estaciones de Servicio, medida sobre la carretera, no será nunca inferior a la distancia de parada correspondiente a la velocidad específica del tramo en que se encuentre cada acceso.

Se tomarán los valores siguientes:

Velocidad específica (km/h) 120 100 90 80 70 60 50 40 30.

Distancia de visibilidad (m) 210 160 130 100 85 65 45 35 20.

TITULO II

REQUISITOS DE LAS AUTORIZACIONES

**Artículo 8.—*Documentos***

1. Junto con la solicitud de autorización a la que se refiere el artículo 3 del presente Decreto Foral, se presentará el Proyecto Técnico y Memoria descriptiva de la Estación de Servicio en los que detalladamente se delimitarán los terrenos sobre los que se asienta la Estación de Servicio, la ubicación de las edificaciones, número y disposición de los surtidores, trazado de los accesos, capacidad de los carriles de espera, composición del firme, urbanización de los terrenos, así como la señalización, publicidad e iluminación de las instalaciones.

2.- Eskatzaileak, aieraztako agiriak eskatutako eduki guztiekin aurkeztu ahal izateko, gasolindegien instalazioari buruzko argibide guztiak eskatu ahal izango dizkio Herrilan Sailari.

**9. artikulua.—*Ingurunearekiko moldaketa***

Instalazioak kokatuko diren ingurunera moldatu beharko dira.

Horretarako, eta kasu bakoitzean ezar daitekeen hirigintz arautegiak gaiaz ezarritakoaren kaltetan jo gabe, instalazioen seinalizazioak eta argiztapenak, ahal den neurrian, inguruko paisaiarekin eta eraikinekin bat etorri beharko dute.

**10. artikulua.—*Gasolindegi motak***

Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide konbentzionaletan baimendutako gasolindegiak ES.1, ES.2 eta ES.3 motako gasolindegietan sailkatuko dira, mota ezberdin horien parametroak eta ezaugarriak foru dekretu honetako eraskinetan zehaztuko direlarik.

**11. artikulua.—*Gasolindegiek bete beharreko baldintzak***

Aurreko artikuluan adierazitako gasolindegi motak Bizkaiko Lurralde Historikoan jarri nahi izanez gero, baimenak preskripzio hauek bete beharko ditu:

1. Eguneko bataz besteko intentsitatea 8.000 ibilgailutik gorakoa denean, ES1 motako bi gasolindegi jarri beharko dira, nahitanahiez, errepidearen alde bakoitzean bana.

Horrelako gasolindegiak bata bestearekiko aurrez-aurre jarriko dira. Horrelakorik egiterik ezinezko gertatuko balitz, lehendabiziko gasolindegia, derrigorrez, zirkulazioaren norabideari jarraituz eskuma aldera geratzen den aldean kokatuko da.

Erdibitzaile fisiko bat jarriko da, bide batean barrena ari diren ibilgailuei aurkako norabidean duten gasolindegira biratzea oztopatuko diena.

2. Eguneko bataz besteko intentsitatea 5.000 eta 8.000 ibilgailu bitartekoa denean, ES2 mota gasolindegi bakarrerako baimena eman ahal izango da, zirkulazioaren norabide bietarako izango dena.

Baimenaren eskatzaileak proiektuko gasolindegiaren antzeko ES1 motako beste gasolindegi bat jartzeko adinako lur azalera gordeko du, beste aldean, gasolindegiaren aurrez-aurre, errepideak 8.000 ibilgailuren muga gainditzen duenean jarri ahal izateko.

3. Eguneko bataz besteko intentsitatea 5.000 ibilgailukoa baino gutxiagokoa denean, ES3 mota gasolindegi bakarrerako baimena eman ahal izango da, zirkulazioaren norabide bietarako izango dena.

4. Errepide bateko eguneko bataz besteko intentsitatearen edozein gehikuntzak, gasolindegiaren titularrari, aurreko parametroetara moldatzeko, gasolindegia aldatu behar izatea erakarriko dio.

Horrela, aldaketa horren beharra behin benetakotuz gero, bete behar diren baldintzak xehetasunez agertuko dira baimenetan.

**12.—*Gasolindegietarako sarbideak***

1. Gasolindegira sartzeko eta gasolindegitik irteteko abiadura murrizteko edo errepidera sartzeko bideak erabiliko dira, horiek foru dekretu honen eraskinetan gasolindegi mota bakoitzerako ezarritako baldintza eta ezaugarriak bete beharko dituztelarik.

2. Edonola ere, sarbideak ibilgailu mota guztiei sarrera uzteko modukoak izango dira, batez ere kontrako erreitik datozenei, baina galtzadan maniobrarik egin beharrik gabe.

3. Aldi berean, gasolindegia eta galtzada elkarrengandik bereizteko sasirlatxoen dimentsioak direla, hornitegien kokapena dela eta, oro har, gasolindegi bakoitzeko osagaien kokapena dela, horietarako foru dekretu honetako eraskinetan adierazitakoa izango da aginduzkoa.

III. TITULUA

PROZEDURA

**13. artikulua.—*Hasiera***

Interesatuak eskabidea aurkeztean emango zaio hasiera administrazio prozedurari. Eskabidea, foru dekretu honetako 8. arti-

2. Al efecto de presentar la documentación señalada con el contenido requerido, el solicitante podrá recabar cuanta información conste en el Departamento de Obras Públicas en relación con la instalación de Estaciones de Servicio.

**Artículo 9.—*Adaptación al ambiente***

Las instalaciones deberá adaptarse al entorno en el que se sitúen.

A tal efecto y sin perjuicio de lo establecido al respecto por la normativa urbanística aplicable en cada caso, la señalización e iluminación de las instalaciones habrá de armonizarse, en la medida de lo posible, con el paisaje y los edificios colindantes.

**Artículo 10.—*Tipos de Estaciones de Servicio***

Las Estaciones de Servicio que se autoricen en las carreteras convencionales del Territorio Histórico de Bizkaia se clasificarán en Estaciones tipo ES.1, ES.2 y ES.3, cuyos parámetros y características se especifican en los Anexos del presente Decreto Foral.

**Artículo 11.—*Condiciones de las Estaciones de Servicio***

La autorización de los tipos de Estaciones de Servicio señalados en el artículo anterior en el Territorio Histórico de Bizkaia se sujetará a las prescripciones siguientes:

1. Cuando la Intensidad Media Diaria sea superior a 8.000 vehículos deberán instalarse necesariamente dos Estaciones tipo ES1, situándose una en cada margen.

Tales Estaciones se emplazarán una enfrente de la otra. Si ello no fuera posible, la primera Estación que se encuentre tendrá que ser la situada a la derecha según el sentido de la marcha.

Se dispondrá de una mediana física que impida a los vehículos que circulan por una vía girar a la Estación que da servicio al sentido contrario.

2. Si la Intensidad Media Diaria oscila entre 5.000 y 8.000 vehículos, se podrá autorizar una sola Estación tipo ES2, la cual servirá a los dos sentidos de la circulación.

El solicitante de la autorización deberá reservar una superficie de terreno suficiente para instalar enfrente de la proyectada otra Estación tipo ES1 para cuando la Intensidad Media Diaria supere el límite de los 8.000 vehículos.

3. Si la Intensidad Media Diaria es inferior a 5.000 vehículos se podrá autorizar sólo una Estación tipo ES3. Dicha Estación prestará servicio a los dos sentidos de la circulación.

4. Cualquier aumento de I.M.D. en una carretera que suponga un cambio del tipo de Estación obligará al titular de la misma a su modificación para adaptarla según los parámetros anteriores.

En este sentido, las Autorizaciones detallarán las condiciones que, en su caso, deban cumplirse una vez acreditada la necesidad de esta modificación.

**Artículo 12.—*Accesos a las Estaciones de Servicio***

1. El acceso y salida de las Estaciones de Servicio se efectuará por las correspondientes vías de deceleración o incorporación, las cuales deberán reunir las condiciones y características técnicas señaladas en los Anexos del presente Decreto Foral para cada tipo de Estación.

2. En todo caso, los accesos deberán ser suficientes para permitir la entrada de todo tipo de vehículos, especialmente los que circulen por el carril opuesto, sin necesidad de efectuar maniobras sobre la calzada.

3. Igualmente, las dimensiones de las isletas de separación de las Estaciones de Servicio de la calzada, la ubicación de los surtidores y, en general, la disposición de los elementos de cada Estación se ajustará a lo señalado en los Anexos del presente Decreto Foral.

TITULO III

PROCEDIMIENTO

**Artículo 13.—*Iniciación***

El procedimiento administrativo se iniciará mediante la formalización de la correspondiente solicitud por parte de la perso-

kuluan aipatu agiriekin batera, Herrilan Saileko foru diputatuari zuzenduko zaio.

**14. artikulua.—*Espedienteari eman beharreko bidea***

1. Aurreko artikuluan aipatu agiriak behin jasotakoan, Herrilan Sailak bi hilabeteko epearen barruan espedienteari buruzko txostena idatziko du.

Aldi berean, obren burutzapen egokia bermatzeko, aurretiaz gordailua eratzea eskatu ahal izango du.

2. Gasolindegia jartzeko baimen-eskabidean edo eskabidearekin aurkeztu behar diren agirietan akatsak daudela, ongitu ahal izateko modukoak, sumatuz gero, Herrilan Sailak agindeia jaso eta biharamunaz geroko 20 eguneko epearen barruan, ohartemandako hutsak zuzentzeko edo bidezkotzat jotzen dituen alegazioak egiteko agindeia egingo dio interesatuari.

3. Hutsak zuzentzeko aldiaren barruan etenda geratuko da artikulu honetako lehen atalean aipatu den bi hilabeteko epea.

4. Hutsak zuzentzeko epea igaro eta interesatuak agiririk aurkeztu ez badu, eskabidea gaitziritzitzat joko da.

**15. artikulua.—*Entzunaldia ematea***

1. Espedienteari behin jarraipidea eman ostean, interesatuari horren berri emango zaio, hamar eguneko epea bidezkotzat jotzen dituen alegazio guztiak egin ditzan.

2. Aurreko atalean aipatu tramitea baztertu ahal izango da prozeduran eskatzaileak azaldutakoez ez bezalako egitate edo inguruabarrik ez badago edo ebazpena ematerakoan horrelakorik kontutan hartzen ez denean.

**16. artikulua.—*Ebazpena***

1. Herrilan Sailak aurkeztutako eskabideari buruzko ebazpena emango du, zioak eta adierazita, aurreko artikuluan aipatu entzunaldia ematearen pausoa amaitu eta biharamunaz geroko 20 eguneko epearen barruan, bestela, entzunaldirik eman ez bada, espedienteari buruzko txostena egiteko ezarrita dagoen bi hilabeteko epea bukatuz geroko 20 eguneko epearen barruan.

2.- Aurreko atalean aipatutako 20 egunak behin amaituz gero, eta epe horren barruan Herrilan Sailak ebazpenik eman ez badu, eskatutako baimena gaitziritzitzat joko da.

XEDAPEN ERANTSIA

Lehendik jarrita zeuden instalazioak birmoldatzeko baimenak, foru dekretu honetako zehaztapenen barruko proiektu egokia aurkezten denean bakarrik emango dira.

Era berean, errepide bateko eguneko bataz besteko intentsitatea (E.B.B.I.) gehitu delako, foru dekretu honen arabera errepide horretako gasolindegi mota bat aldarazi behar denean, interesatuak proiektu egokia aurkeztu beharko du, Herrilan Sailak baimena eman diezaion.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru dekretu hau indarrean jarri baino lehen Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide Konbentzionaletan gasolindegiak jarri ahal izateko aurkeztutako baimen-eskabideak arautegi berrira molda daitezke, interesatuak horrela eskatzen badu.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.- Herrilanen foru diputatuari ahalmena emana zaio, berak dituen eskumenen eremuaren barruan, foru dekretu hau garatu eta betearazteko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena.- Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 1995.eko otsailaren 7an.

Diputatu nagusia,
JOSE ALBERTO PRADERA JAUREGI

Herrilaren foru diputatua,
FEDERICO I. BERGARETXE ZURIMENDI

na interesada, la cual deberá ir dirigida al Diputado Foral del Departamento de Obras Públicas, junto con los documentos a los que se hace referencia en el artículo 8 del presente Decreto Foral.

**Artículo 14.—*Instrucción del expediente***

1. Recibidos los documentos a los que se hace referencia en el artículo anterior, se procederá por el Departamento de Obras Públicas a informar el Expediente incoado en el plazo de dos meses.

Asímismo, se podrá requerir la constitución de un depósito previo para garantizar la correcta ejecución de las obras.

2. En el supuesto de que en la solicitud de autorización para la instalación de una Estación de Servicio, o en los documentos que deban acompañarse a la misma, se advirtiera la existencia de defectos subsanables, el Departamento de Obras Públicas requerirá al interesado para que en el plazo de 20 días, contados a partir del siguiente al recibimiento del requerimiento, proceda a subsanar los defectos advertidos, o a efectuar las alegaciones que estime pertinentes.

3. Durante el período de subsanación de las deficiencias quedará interrumpido el plazo de dos meses al que se hace referencia en el apartado uno del presente artículo.

4. Transcurrido el plazo de subsanación de las deficiencias sin que por el interesado se hubiera aportado documentación alguna, se entenderá desistida la solicitud.

**Artículo 15.—*Trámite de audiencia***

1. Instruído el Expediente, éste se pondrá de manifiesto al interesado para que en el plazo de diez días formule cuantas alegaciones estime oportunas.

2. Podrá precindirse del trámite al que se hace referencia en el apartado anterior cuando no consten en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta en la resolución hechos o circunstancias distintas a las expuestas por el solicitante.

**Artículo 16.—*Resolución***

1. En el plazo de 20 días a contar del siguiente a la finalización del trámite de audiencia al que se hace referencia en el artículo anterior o, cuando éste no se hubiera celebrado, a contar a partir de la finalización del plazo de dos meses establecidos para informar al Expediente, por el Departamento de Obras Públicas se resolverá motivadamente sobre la solicitud presentada.

2. Transcurridos los 20 días a los que se hace referencia en el apartado anterior sin que por el Departamento de Obras Públicas se haya emitido resolución alguna, la autorización solicitada deberá entenderse desestimada.

DISPOSICION ADICIONAL

Las autorizaciones para la remodelación de las instalaciones existentes únicamente se concederán cuando se presente el correspondiente Proyecto ajustándose a las determinaciones del presente Decreto Foral.

Cuando el incremento de la I.M.D. en una carretera obligue según el presente Decreto Foral a la modificación del tipo de Estación, el interesado deberá presentar asimismo el correspondiente Proyecto que será autorizado por el Departamento de Obras Públicas.

DISPOSICION TRANSITORIA

Las solicitudes de autorización para la instalación de Estaciones de Servicio en las carreteras convencionales del Territorio Histórico de Bizkaia presentadas con anterioridad a la entrada en vigor del presente Decreto Foral, podrán adaptarse a la nueva normativa a petición del interesado.

DISPOSICIONES FINALES

Primera: Se faculta al Diputado Foral de Obras Públicas para dictar, en el ámbito de sus competencias, las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de este Decreto Foral.

Segunda: El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Bilbao, 7 de febrero de 1995.

El Diputado General,
JOSE ALBERTO PRADERA JAUREGI

El Diputado Foral de Obras Públicas,
FEDERICO I. BERGARETXE ZURIMENDI

ERASKINAK / ANEXOS



ESQUEMA DE LA ESTACION ES-1 IMD>8000



DETALLE



ESQUEMA DE LA ESTACION ES-2 IMD>5000 IMD<8000



DETALLE



ESQUEMA DE LA ESTACION ES-3 IMD <5000